

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak***TOKI ADMINISTRAZIOAREN ETA  
LURRALDE OREKAREN SAILA**

7101

**607/2009 ERABAKIA**, urriaren 6ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, onartu egiten da Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako erregidore eta kideak hautatzeko deialdia, eta aukeratu, hauteskunde horiek egiteko, 2009ko azaroaren 29a.

Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako erregidore eta kideak hautatzeko foru araua 1984ko uztailaren 30eko Biltzar Nagusietan onartu zen. Foru arau horren 6. artikuluan xedatzen da foru aldundiak deituko dituela kargu horietarako hauteskundeak.

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta lege araubideari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 5.6) artikulua Diputatuen Kontseiluari aitortzen dio kargu horien hauteskundeetarako deia egiteko eskumena.

Horregatik guztiagatik, Toki Administrazioaren eta Lurralde Ore-karen Saileko foru diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaia gaur bertan egindako bileran aztertu ondoren, hauxe

**ERABAKI DUT**

Lehenengoa. Arabako Lurralde Historikoko kontzejuetako erre-gidore eta kideak izendatzeko hauteskundeetarako deia egitea.

Bigarrena. Hauteskunde horietarako 2009ko azaroaren 29a ezartzea.

Hirugarrena. Toki Administrazioaren eta Lurralde Ore-karen Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio hauteskunde prozesu osoa bere alderdi eta gorabehera guztietan izapidetzeko behar diren egintza eta xedapen guztiak emateko.

Laugarrena. Erabaki honek ALHAOn argitaratzen den egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 6a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Toki Administrazioaren eta Lurralde Ore-karen Saileko foru diputatua, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.– Toki Adminis-trazioaren zuzendaria, IZASKUN MARTÍNEZ DE LAHIDALGA PINEDO.

*Foru Aginduak***HERRILAN ETA GARRAIO SAILA**

7239

**1166/2009 FORU AGINDUA**, urriaren 13koa, Herrilan eta Garraio Saileko foru diputatuarena. Honen bidez, aldatu egiten da maiatzaren 15eko 526/2009 Foru Aginduaren bidez izenda-tutako epaimahaiaren osaera. Azken foru agindu horren bidez, deialdia egin zen salgaiak eta bidaiariak errepide bidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide ziurtagiria lortzeko probak.

Maiatzaren 15eko 526/2009 Foru Aginduaren bidez, deialdia egin zen salgaiak eta bidaiariak errepide bidez garraiatzera zuzenduriko zenbait ibilgailuren gidarien hasierako prestakuntza egiaztatzen duen lanbide gaitasunaren ziurtagiria lortzeko Arabako Lurralde Historikoan egingo ziren probetarako, eta prozesu horiek arautzen dituzten oinarriak argitaratu ziren.

526/2009 Foru Aginduaren eranskinaren zazpigarren oinarriaren bidez, probak kalifikatuko dituzten epaimahaiko kideak izendatu ziren, baina aldatu egin behar dira aldaketak izan direlako Herrilan eta Garraio Sailean zerbitzuak ematen dituzten langileen artean.

Horregatik, neure esku ditudan ahalmenez baliatuta, hauxe

*Acuerdos del Consejo de Diputados***DEPARTAMENTO DE ADMINISTRACIÓN LOCAL  
Y EQUILIBRIO TERRITORIAL**

7101

**ACUERDO 607/2009**, del Consejo de Diputados de 6 de octubre, que aprueba la convocatoria de Elecciones a Regidores/as y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Álava y señala como fecha de la celebración el día 29 de noviembre de 2009.

La Norma Foral de Elección de Regidores y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Alava, aprobada por las Juntas Generales el 30 de julio de 1984, establece en su artículo 6º que las elecciones para tales cargos se convocarán por la Diputación Foral.

El artículo 5.6) de la Norma Foral 52/1992, de Organización, Funcionamiento y Régimen jurídico de la Diputación Foral de Alava atribuye al Consejo de Diputados la competencia para convocar las elecciones a tales cargos.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de la fecha,

**ACUERDO**

Primero. Convocar elecciones para la designación de Regi-dores/as y Vocales de los Concejos del Territorio Histórico de Alava.

Segundo. Señalar como fecha de celebración de tales elec-ciones el 29 de noviembre de 2009.

Tercero. Facultar al Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial para dictar cuantos actos y disposiciones sean necesarios para la íntegra tramitación del proceso electoral en todos sus aspectos e incidencias.

Cuarto. El presente Acuerdo entrará en vigor el mismo día de su publicación en el BOTHA.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2009.– El Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– El Diputado de Administración Local y Equilibrio Territorial, ALFREDO DE MIGUEL AGIRRE.– La Directora de Administración Local, IZASKUN MARTÍNEZ DE LAHIDALGA PINEDO.

*Órdenes Forales***DEPARTAMENTO DE OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES**

7239

**ORDEN FORAL 1166/2009**, del Diputado de Obras Públicas y Transportes de 13 de octubre, que modifica la composición del Tribunal nombrado por la Orden Foral 526/2009, de 15 de mayo, que convoca las pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acreditativo de la cualifi-cación inicial de los conductores de determinados vehículos destinados al transporte de mercancías o de viajeros por carretera.

Por Orden Foral 526/2009, de 15 de mayo, se convocaron las pruebas para la obtención del certificado de aptitud profesional acre-ditativo de la cualificación inicial para los conductores de deter-minados vehículos destinados al transporte de viajeros y mercancías por carretera a celebrar en el Territorio Histórico de Álava, así como las bases reguladoras de los citados procesos.

La base séptima del Anexo de la citada Orden Foral 526/2009, realiza los nombramientos de los miembros del Tribunal que cali-ficará las pruebas, que han de ser modificados por cambios en el personal que presta sus servicios en el Departamento de Obras Públicas y Transportes.

En su virtud, haciendo uso de las facultades que me competen,